

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Mendi errusiarrean
nola

Amaia Alvarez Uribe

Maialen Hegi-Lukuren opera primari buruz hitz egingo dugu hurrengo lerroetan. *Girgileri anderea* izenburua eman dio aurtengo Gazteluma IX. Literatur sorkuntzarako burtsan irabazle izan den lanari. Ipar Euskal Herriko idazle gazteak euskaraz idaztera bultzatzeko sortu zuten 2000. urtean eta hau da saritutako zazpigarren lana.

Munia protagonista bipolarra da eta egi-learen xedea irakurlea “eri-ero-tasun” horren aurrean jartzea da. Horretarako kanpotik eta barrutik begiratuko diote gaiari ahots narrati-bio desberdinek. Lehen pertsona agertuko zaigu protagonistak bere esperientziaren berri ematen digunean eta hirugarren pertsonarekin narratzaileak erakutsiko dizkigu ingurukoek, senideek eta lagunek, nola bizi duten.

Nahasmendu psikologikoak, buruko gaixotasunak, gogo-mina, zoramena... Azkenaldiko mendebaldeko kulturaren gero eta zabalduago dauden gaitzak dira eta euskal literaturan ere nabari da presentzia areagotze hori. Orain arteko bi adibide azpimarragarrienak Itxaso Martinen *Ni Vera* (2012) eta Alaine Agirreren *Odol mamituak* (2014) dira. Hiru lanotan agertzen dira esperientzia hau bizi izan dutenen testigantza eta ingurukoengan izan duen eragina.

Hegi-Lukuk bipolaritatea fikzioaren bidez kontatzeko saiakera honetan testu mota anitzak erabili ditu: narrazioa, elkarriketak, egunerokoa, sare sozialetako mezuak, gutunak, eta idazteaz gain, azaleko eta bost atal hasieretako marrazkiak egin ditu.


Girgileri anderea

MAIALEN HEGI-LUKU

Elkar, 2018

Maialen Hegi-Luku idazlea
(Baiona, 1987).

ISABELLE MIQUELESTORENA



Erabilitako irudi eta sinboloek mitologiatik edaten dute amalurra, lamia, edo katu beltza orriotara ekartzen dituenen, eta larrea eta kalea elkarren arteko lehian kokatu ditu. Protagonista Parisen bizi da, baina trenez ibiliko da joan eta etorrian Baionako gurasoen baserrira eta buelta hirira, osatzeko eta oreka berreskuratzeko.

Koloreei dagokienez, beltza, iluntasuna eta gaua hedatzen dira depresio uneetan, gordaldi eta delirioetan aldiz, mila kolorek kitzikatuko gaituzte merkataritza gunetako neoi eta kaletako argietan. Agirreren lanean aldiz, gorria zen nagusi, odolaren, larritasunaren kolorea. Zeharka, ikuspegi kritikoa ere agertzen da, adibidez, protagonistak galdetzen duenean “nork edo zerk du lema atxikitzen?”, gorpuzak, gogoak, psikiatreek, laborategi farmazeutikoeak? Beraz, bada modurik gai hauetan euskaraz barneratzeko. ■